

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

**Donostia Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:
Certifico:**

Donostia Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2017ko apirilaren 25an izandako ohiko bileran, aho batez onartu zuen, jarraian transkribatu den Erakunde Adierazpena:

"Apirilaren 14an, II. Errepublikaren aldarrikapenaren 86. urteurrena ospatzen da, benetako zuzenbide estatua ezarri zuen eta Espainiako lehenengo konstituzio demokratikoa aldarrikatu zuen gure historiako lehenengo erregimen demokratikoarena. Konstituzio hark jaso zituen, besteak beste, honako printzipio demokratiko hauek: espainiarren legearen aurreko berdintasunaren printzipioa, Espainia "askatasunaren eta justiziaren araubidean antolatzen den mota guztietako langileen errepublika" aldarrikatu zuenean; herri subiranotasunaren printzipioa, sufragio unibertsala ezarri baitzuen 23 urtetik gorako gizon eta emakumeentzat; ekonomian, jabetza pribatua ekonomia nazionalaren interesen mende jarri zuen; "udalerrien eta eskualdeen autonomiarekin bateratu daitekeen Estatu integrala" eratu zuen; laikotasunaren printzipioa ezarri zuen ("Estatuak, eskualdeek, probintziek eta udalerriek ez dituzte mantenduko eta ez diete mesederik ez laguntza ekonomikorik emango elizei ez eta bestelako erlijio elkarte zein erakundeei ere"); ezkontza zibila eta dibortzioa aitortu zituen; lehen hezkuntza laikoa, doakoa eta derrigorrezkoa izango zela agindu zuen; eta, azkenik, katedra askatasuna aitortu

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 25 de abril de 2017, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

"El 14 de abril se cumplirán 86 años de la proclamación de la II República, el primer régimen democrático de nuestra historia que instauró un verdadero Estado de Derecho y proclamó la primera constitución democrática de España. Esta Constitución plasmó el principio de igualdad de los españoles ante la ley, al proclamar España como "una república de trabajadores de toda clase que se organiza en régimen de Libertad y de Justicia", el principio de soberanía popular, establece el sufragio universal para hombres y mujeres mayores de 23 años, en economía la propiedad privada quedó sujeta a los intereses de la economía nacional, se constituyó un "Estado integral, compatible con la autonomía de los Municipios y las Regiones", el principio de laicidad "el Estado, las regiones, las provincias y los Municipios, no mantendrán, favorecerán, ni auxiliaran económicamente a las Iglesias, Asociaciones e Instituciones religiosas", además se reconoció matrimonio civil y el divorcio así como la enseñanza primaria laica, gratuita y obligatoria, y se reconoce la libertad de cátedra.

zuen.

II. Errepublikak gure gizartearen eraldaketa sustatu zuen, banakoen zein gizartearen askatasunen alde, eta gizarte justizia lortzearen alde.

La II República promovió el avance en la transformación de nuestra sociedad, en la defensa de las libertades individuales y colectivas, y en la consecución de la justicia social.

II. Errepublikako banderak irudikatzen du, beste balio eta printzipio askoren artean, Espainiako estatuan izan den lehen sistema politiko demokratikoa. Aurrerapen handia ekarri zuen hainbat alderditan, hala nola berdintasunarenean, estatuaren ez-konfesionaltasunean, hezkuntzan, kulturaren eta gizarte zein lan eskubideen arloetan. Emakumeen boto eskubidea onartu zuen, eta Kataluniaren eta Euskadiren autogobernu eskubidea aitortu zuen.

La bandera de la II República representa, entre otros muchos valores y principios, el primer marco político democrático en el estado español. Supuso un gran avance en materia de igualdad, aconfesionalidad del estado, educación, cultura y derechos sociales y laborales. Aprobó el voto femenino y reconoció el derecho al autogobierno de Cataluña y Euskadi.

Gerra Zibila galtzarekin bat amaitu zen sistema demokratiko hura; ondoren, frankismoak, errepresioak eta atzerapenek menderatutako 40 urte iritsi ziren. II. Errepublikak herri oso baten faszismoaren aurkako borroka ere adierazten du. Gaur egun ere, bideen arekatan daude oraindik demokrazia defendatzeagatik hil zituzten milaka herritar.

Este sistema democrático acabó con la derrota en la Guerra Civil para dar paso además de 40 años de franquismo, de represión y de retrocesos. Asimismo, la II República representa la lucha de todo un pueblo contra el fascismo. Hoy aún quedan en las cunetas decenas de miles de ciudadanos y ciudadanas asesinados por defender la democracia.

Euskadirentzat, Errepublika etorkizun bidezkoago eta demokratikoago bat eraikitzeke estatu eredu bat da, gainera. Horregatik, apirilaren 14ak aldarrikapen eguna izan behar du: Errepublika izateko eskubidea erreklamatzeko, garai hartako udaletako alkate eta zinegotzi guztiei omenaldi bat egiteko, eta II. Errepublikaren aurkako estatu kolpe frankista gaitzesteko.

Además la república representa hoy para en Euskadi un modelo de estado por el que apostar para construir un futuro más justo y democrático. El 14 de abril tiene que ser una fecha reivindicativa para reclamar el derecho a la República y hacer un homenaje a todos los alcaldes y concejales de los ayuntamientos de aquel período, así como condenar el golpe de estado franquista contra la II República.

Hori dela eta, hau da aurkezten dugun

Por todo eso, presentamos la siguiente:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

- Donostiako Udalak errepresio frankistaren biktima izan ziren herritar guztien eskubide zibil eta politikoak eraberritzera bideratutako ekintzak sustatuko ditu".=====

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

- El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián promoverá actividades encaminadas a la rehabilitación política y cívica de todos aquellos ciudadanos y ciudadanas que fueron víctimas de la represión franquista".=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2017ko maiatzaren 4an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 4 de mayo de 2017.

IDAZKARI NAGUSIA -
EL SECRETARIO GENERAL: Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga

ALKATEAK O. E. -
V.º B.º DEL ALCALDE:


Eneko Goia Laso